# kontzertuen agenda

Leku hau zabalik duzu zure ekitaldien berri emateko

Abisua astearte eguerdiko 14:00ak baino lehen eman ezazu, arren

## ZOZKETAK



**Etzakit taldearen 20 singlelen irabazleak dituzue ondokoak:**

- Eli Urdangarin Zumeta (Orio)
- Ainhoa Zuzunegi (Zizurkil)
- Josune Irastorza (Donostia)
- Jose M. Ruiz de Alegria (Bermeo)
- Izar Sarriegi (Beasain)
- Edu de la Cruz (Elorrio)
- Irati mujika Larreta (Amezketa)
- Maitane Zabala (Lazkao)
- Beñat Zabalbeasko Zabala (Gernika-Lumo)
- Eztitxu Etxeberria (Ataun)
- Alaitz Rekondo Ferrero (Lesaka)
- Nerea Larrazabal Lazkano (Getaria)
- Liher Elgezabal (Bilbo)
- Nere Amenabar (Hernani)
- Leire Amondarain (Gasteiz)
- Axun Gereka (Oñati)
- Maria Agirre
- Garikoitz Zulueta (Portugalete)
- Itzi Alonso. (Donostia)
- Ziortza Zenikazelaia (Berango)
- Aitor Galarraga (Elgoibar)




**Zea Mays taldearen disko berria entzuten hasteko modu polita duzue ondokoa. Gor disketxearekin kaleratu berri duen diskoaren 10 eredu (singleak) eta 10 kamiseta zozketatzen ditugu hemen. Badakizue zer egin.**

## Osteguna 20

BERA ▸ **Sabot** (EEBB-Txekia). Puig tabernan, 23:00etan. (Egun berean beste leku batean ere izan arren, kontzertua egingo da).

▸ **Dj festa: M &M (Lasarte, Zulo), Momotombo (Hernani) eta Lou K (Hernani).** Konplot aretoan, 00:00etatik aurrera. Doan.

DONOSTIA ▸ **DJ Elektropez.** Etxekalten.

GORLIZ ▸ **Old Time Relijun.** Xurrut tabernan.

KANBO ▸ **Mikel Urdangarin, Ekintza.** Karpa erraldoian, 20:00etan. Gazte topagunean.

▸ **Celine Munole, Bide ertzean, Sabot.** Gazte topaguneko kultur karpan, 16:00etatik aurrera.

IRUÑEA ▸ **Bananas.** Donegalen, 21:30etan.

LEKEITIO ▸ **DJ Blami.** Kabaua aretoan.

OIARTZUN ▸ **Soneros del Changui.** Pagoa aretoan, 22:30etan.

## Ostirala 21

CHICLANA (BADAJOZ) ▸ **Fallen.** Pachamama tabernan.

DONOSTIA ▸ **Bussines Class.** Etxekalten. Absolutely horrorosa 10"-ren aurkezpena.

KANBO ▸ **Fermin Muguruza Dub Manifest, Soziedad Alkoholika, Inadaptants, Haurtzarrak.** Karpa erraldoian, 21:30etan. Gazte Topagunean.



▸ **Mara, Petti eta Potato.** Gazte topaguneko kultur karpan, 18:00etatik aurrera (orden horretan).

LEKEITIO ▸ **DJ Garcy noise.** Kabaua aretoan.

LES BORGES BLANQUES (LLEIDA) ▸ **Jabier Muguruza.** 22:00etan.

OIARTZUN ▸ **Mikel Telleria** eta **Ibon Salaberria.** Pagoa aretoan, 23:00etan.

SANTIAGO (TXILE) ▸ **La Polla.**

URDUÑA ▸ **Mayday** eta **Greater Freedom of Movement.** Piperra tabernan, 20:30etan. (Urduña Hiria maketa lehiaketaren barruan).

## Larunbata 22

BUENOS AIRES (ARGENTINA) ▸ **La Polla.**

DONOSTIA ▸ **DJ Araña.** Etxekalten.

KANBO ▸ **Rip, Su Ta Gar, Etsaiak, Hats, Barrikada, Betagarri 80/00.** Karpa erraldoian, 21:00etan. Topagunean.

▸ **Aire ahizpak** eta **Selektah kolektiboa.** Gazte topaguneko kultur karpan 17:00etan (orden horretan).

LEKEITIO ▸ **Zeus.** Kabaua aretoan. Konfirmatu gabe.

UBEDA (JAEN) ▸ **Fallen.**

## Igandea 23

ALCALA DE HENARES (MADRIL) ▸ **Fallen.**

DONOSTIA ▸ **DJ Chico.** Etxekalten.

## Astelehena 24

MONTEVIDEO (URUGUAI) ▸ **La Polla.**

## Asteartea 25

BILBO ▸ **David Lyons.** Mistyk kafe antzokian.

## Asteazkena 26

BILBO ▸ **Clown** eta **Frik.** Bilborock aretoan, 20:00etan. Bilbo Hiria pop-rock lehiaketa. Metal atala.

DONOSTIA ▸ **Txomin & Urbil Artola.** EHUko auditorioan (Ibaetan), 13:30etan.



▸ **Terry Riley eta Stefano Scodanibbio. Musika berrien jaialdia.** Gasteszenan, 21:00etan.

## Osteguna 27

BILBO ▸ **Airbag, Redrum** eta **Fumas Iskariote.** Bilborock aretoan, 20:00etan. Bilbo Hiria pop-rock lehiaketa. Pop atala.

▸ **New Bomb Turks** eta **Obligaciones.** Kafe Antzokian, 22:00etan. Sarrera: 1.500 pezeta a. a / 1.800 pezeta.

▸ **Doctor Blues.** Mystic kafe antzokian, 21:00etan.

DONOSTIA ▸ **Brian Blade.** Gasteszena aretoan.

▸ **Pez dj.** Etxekalten.



DURANGO ▸ **Xabier Montoia.** Berbaro tabernan, 21:00etan.

IRUÑEA ▸ **Zombi Zu.**

## zuzenean

**D'Échecs (Bilbo), Monoplaza (Sevilla) eta Baluge (Sevilla).**

Apirilaren 13a. Bilbo Hiria Pop-Rock Lehiaketa.

# Kili-kolo salbuespenak salbu

joseba martin

D'Échecs taldean sei pertsona daude: bi emakumezko kantari —hauetariko bat teklatu jolea da noizean behin—, bi gitarra jole eta erritmo sekzioa. Dena den, oso gazteak dira, bat edo bitan agertu dira zuzenean eta soinu ezberdin mordoska pilatzen dute ongi bereizten jakin gabe. Gaztelaniaz hasi ziren, eta ingelesez jarraitu —askotan bereiztea zaila bazen ere—. Kantariak direla eta, harmoniak egin ordez, batak bestearen esaldia errepikatzen zuen ondoren —oihukatzen izango litzateke hitz egokiagoa—. Baina tira, horrelaxe lortzen da esperientzia. Azken kantuan gonbidatu bat agertu zen, djembe bat eskuetan, baina aurreko kaosa ez zen askoz gehiago hobetu.

Sevillako Monoplaza taldearekin gauzak erabat hobetu ziren. Laukote honek gaztelaniaz egiten du lana eta, batez ere, bitarteko erritmoetan moldatzen da. Bateria jolea fina da, garbi-garbi jotzen zuen, eta danborretatik zenbait ukitu orijinal atera zuen. Polita eta txukuna izan zen efekto gabeko bi gitarra joleen lana ere. Kantariaren hitzak primeran ulertu genituen, eta instrumentu hutsezko lelo entzungarri bat eman zuten ekitaldiaren erdian. Amaitzeko kantu luze bat eskaini zuten, *in crescendo*, musika sendo hori agortu arte. Dena den, poparen arriskuan erori ziren: kantu guztiak antzekoak ziren, eta azkenerako nekagarri samarra iruditu zitzaigun ekitaldia. Hau pena.

Balugak, berriz, gaueko kontzertu interesgarriena eskaini zuen. Gogor hasi zen Sevillako boskote hau lehenbiziko kantutik, denetariko erritmoak jo zituztelarik. Hiru gitarra jole daude taldean, eta giro sendo eta indartsua lortu zuten zarata handirik atera gabe. Tentsioa mantentzen badakite hauek. Tamalez, ordurako entzule asko joana zen. Balugak ere gaztelaniaz egin zuen, agurreko salbuespena salbu: Dale Hawkins-ek (eta gero Credencek) egindako *Susie Q* moldatu zuten, ezkerreko gitarra jolea kantari zela. Luze-luze egin zuten kantu hau, eta amaieran, soinua zegoen bitartean, banan-banan desagertzen hasi ziren isiltasuna garaile gertatu arte. Entzule gehiago merezi zituen Sevillako talde honek.

PAGOA
OIARTZUN ARETOA

MIKEL TELLERIA
Disko berriaren aurkezpena
+ IBON SALABERRIA + D JAK
Apirilak 21 ostirala - 23:00-06:00
SARRERA: 500 pta.

DUT
+ Taldekoak DJ-Gisara
23:00 - 06:00
Apirilak 28 ostirala
SARRERA: 500 pta.

DE 2 EN BLUES BAND
Apirilak 30 igandea - 23:00-06:00
SARRERA: 800 pta.

EZKONTZAK - BODAK
MENU BEREZIAK
8.000 pezetatik aurrera.
PAGOA JATETXEA
943 49 26 13

BETAGARRI
Disko berriaren aurkezpena
+ D JAK 23:00-06:00
Maiatzak 5 ostirala
SARRERA: 800 pta.

Mikrogaragardotegia
fabrika
+ tabernak
+ jatetxea
+ kontzertu aretoa

Sarrerak salgai:
Oiartzunen: Pagoa - Amazkar - Kastro - Sorgintzulo - Miren - Donostian: Bilintx - Azoka - Frudisk - Irunen: Bertso Hop - Skola Music

PAGOA Garagardotegia - Ergoien auzoa - Oiartzun
Erreserba tel.: 943 492 613 - Faxa: 943 491 134